

ARLO TEKNIKOKO ZERBITZUEN ESKABIDEA	
Zer da? Zertan datza?	Arlo teknikoko zerbitzu bat eskatzean datza (igotzea, uretaratzea, egonaldia edo beste zerbitzu batzuk), beharrak adieraziz, alde aurreko erreserba baten bidez eta maniobra egin aurretik zerbitzu agindua betez.
Nork eska dezake?	Ontzi baten armadoreak edo haren legezko ordezkariak, behar bezala egiaztatuta, edo EKPn erregistratuta dauden mantentze nautikoko enpresek, jarduera horiek segurtasun- eta osasun- araudia betez egiteko.
Aurkeztu beharreko dokumentazioa	<p>Ontzia egoitza-portuan badago:</p> <p>A. Eskatzailea armadorea bera bada: ez da behar.</p> <p>B. Eskatzailea armadorea ez den beste pertsona bat bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskatzailearen identifikazio-dokumentua. • Ordezkaritza hori egiaztatzen duen legezko dokumentua. <p>Beste portu batetik datorren ontziaren kasuan:</p> <p>A. Eskatzailea armadorea bera bada: ontziaren erantzukizun zibileko aseguruua.</p> <p>B. Eskatzailea armadorea ez den beste pertsona bat bada:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskatzailearen identifikazio-dokumentua. • Ordezkaritza hori egiaztatzen duen legezko dokumentua. • Ontziaren erantzukizun zibileko aseguruua.
Non izapidetzen da?	Telefonoz edo aurrez aurre eskabidea egiten den portuko kapitaintzan.
Betebehar ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Eskabide-izapideak ez dakar betebehar ekonomikorik. • Emandako zerbitzuak dagozkion tarifak ordaintzea dakar.
Epea	Erabilgarri dagoen lekuaren arabera.
Lege-esparrua	<ul style="list-style-type: none"> • 2/2018 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena. • Amarratze Agindua, 2017ko urriaren 19koa. • 1/2007 Legegintzako Dekretua, EAeko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena. • EKPren instalazioak erabiltzeko araudia. • Beste araudi batzuk.

Oharrak	<ul style="list-style-type: none"> • Telefonoz eskatzen bada, ondoren dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da. • Garrantzitsua: erabiltzaileak ontziaren berezitasunak transmititu beharko ditu, bereziki obra biziaren ezaugarriak (silikona-patentea, ardatzen, zunden eta helizeen egoera edo beste ezaugarri berezi batzuk). • Portura kanpotik igotzeko bitartekoak behar izanez gero, baimena eskatuko zaio portuko kapitaintzari. • EKPrekin ordaindu gabeko saldoak izanez gero, ez da maniobrarik baimenduko zorra kitatu arte.
Onarpena	Zerbitzu-agindua irekita eta sinatuta dagoenean.
Jaso ondoren jarraitu beharreko prozedura	Bidalketa-sortari (egoitza-portuko ontzia) edo faktura-ordainketari (beste portu batetik datorren ontzia) dagozkion tarifen ordainketa.
Ondorengo izapideen laburpena	Ez da aplikatzen